IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN SAU (IRUNVI)REN BULEGOA ERABERRITZEKO OBRAK OHIKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITZEKO LIZITAZIO PUBLIKOA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK ETA ESLEITZEKO MODUA

1.1. Baldintza agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea izango da Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa/Sociedad Pública de Vivienda de Irun S.A.U.ren (aurrerantzean IRUNVI) bulegoak berritzeko egikaritze proiektuan aurreikusitako obrak egitea, Irungo Eliza kaleko 6. zenbakian.

Hori guztia, ESTUDIO BELDARRAIN, S.L. enpresak idatzitako "IRUNVIREN BULEGOAK BERRITZEKO EGIKARITZE PROIEKTUAN" xedatutakoaren arabera. Bertan, kontratuaren bidez bete beharreko beharrak eta kontuan hartu beharreko alderdi guztiak jaso dira. Proiektu horrek SPKLren 233. artikuluan eskatzen diren dokumentu guztiak ditu, eta HAKLAOren 124. artikulutik 134. artikulura artekoetan xedatutakoa bete da egiterakoan.

Kontratu hau CPV 45000000-7 "Eraikuntza lanak" (orokorra) eta CPV 45213150-9 "Bulego-eraikinak eraikitzeko lanak" kodeen arabera kodifikatua dago, 2007ko azaroaren 28ko Europako Batzordearen 213/2008 Erregelamenduan (EE) –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 Erregelamendua (EE) aldatzen duena– jasota dagoen CPV Nomenklaturari dagokio. 2195/2002 Erregelamenduak kontratu publikoen hiztegi komuna (CPV) onartzen du, bai eta kontratu publikoen prozedurei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/17/EE eta 2004/18/EE erregelamenduak ere, kontratu publikoen hiztegi komunari dagokionez, CPVren berrikuspenari begira.

Ez da sortatan banatuko, SPKLren 99. artikuluaren arabera; izan ere, kontratuaren xedearen arabera, prestazioak modu independentean egiteak zaildu egingo luke kontratua behar bezala betetzea ikuspuntu teknikotik, eta kontratista batek baino gehiagok gauzatzea arriskutsua izango litzateke, egikaritzea koordinatu beharko litzatekeelako.

1.3. Kodea NUTS.- ES 212.

1.4. Lanak idatzitako Obra Proiektuaren arabera egingo dira, Txostena barne, honako hauei lotutako guztian: obra unitatea osatzen duten oinarrizko materialen edo elementuen deskribapena, eta Irungo Udalak 2022ko otsailaren 23an emandako obra lizentziaren edukia. Ondorio guztietarako, Obra Proiektua, Administrazio Klausula Berezien Agiri hau, esleipendunak aurkeztutako eskaintza eta gainerako dokumentuak kontratuaren dokumentuak izango dira, eta halako gisa arautuko dituzte aldeen eskubideak eta betebeharrak, eta bere adostasuna adierazteko, enpresa esleipendunak sinatu egin beharko ditu kontratua formalizatzeko ekintzan. Hertsiki teknikoak diren gaietan izan ezik, Baldintza Agiri honen xedapenek lehentasuna izango dute, hala badagokio, espedientearekin batera doazen gainerako baldintza fakultatiboen aurrean.

1.5. Kontratazioak honako lege eta xedapen hauek izango ditu arau: Baldintza agiri hau, Obrak Egikaritzeko Proiektua, 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak,

2014ko otsailaren 26koak, Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituena (SPKL), 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (HAKLAO) onesten duena, 3854/1970 Dekretua, abenduaren 31koa, estatuko obrak kontratatzeko Administrazio Klausulen Agiria (AKA) onartzen duena eta estatu mailan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzen duen eta haien esparruan aplikagarri den beste edozein xedapen. Osagarri gisa, administrazio zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira eta, halakorik ezean, aplikatzekoak diren zuzenbide zibileko eta merkataritza zuzenbideko arauak.

1.6. Definitutako kontratua obra kontratua da, hauxe da, SPKLren 13. artikuluak zehaztu bezala, eta kontratu pribatua izango da, SPKLren 26.1.b) artikuluaren arabera. Ondorio horietarako, lizitazio honen bidez araututako kontratuaren 26.3 artikuluaren edukiari jarraiki, prestaketari eta esleipenari dagokienean SPKL beteko du, eta ondorioei eta iraungitzeari dagokienean, berriz, zuzenbide pribatuaren arauak beteko ditu. Hala eta guztiz ere, SPKLren honako artikulu hauetan xedaturikoak aplikatu ahal izango zaizkio: ingurumen, gizarte edo lan arloetako betebeharrei buruzko 201. artikuluan xedaturikoa, kontratuak egikaritzeko baldintza bereziei buruzko 202. artikuluan xedaturikoa, kontratua aldatzeko ahalei buruz 203 – 205 artikuluetan xedaturikoa, lagapenari eta azpikontratazioari buruz 214 – 217 artikuluetan xedaturikoa, eta kontratazioaren arrazionalizazio teknikoari buruz 218 – 228 artikuluetan xedaturikoa, bai eta 198. artikuluaren 4. atalean, 210. artikuluaren 4. atalean eta 243. artikuluaren 1. atalean jasotako ordainketa baldintzak ere.

1.7. Kontratua ohiko prozedura irekiaren bidez esleituko da, SPKLren 156. artikuluan eta hurrengoetan, eta HAKLAOn dagozkion artikuluetan edo haren ordezko arauzko xedapenean aurreikusitakoaren arabera. Esleipena askotariko esleipen irizpideen bidez egingo da, kalitate-prezioa erlazio hoberenean oinarrituta. Administrazio Klausula Berezien Agiri honen 18. klausulan jasotakoak dira esleitzeko eta puntuazioa emateko irizpideak.

2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO TASA. GEHIENEKO AURREKONTUA. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.

2.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia eta lizitazio-oinarria exekuzio materialeko aurrekontua da, gastu orokorrak eta etekin industriala barne. Egikaritze-proiektuaren aurrekontuaren arabera, 268.000,00 eurokoa da aurrekontua. BEZa (% 21) 56.280,00 €-koa da; beraz, guztizko aurrekontua, BEZa barne, 324.280,00 €-koa da.

SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, egikaritze proiektuaren aurrekontuan adierazitakoak dira langileen kostuak, zuzeneko eta zeharkako kostuak eta horiek zehazteko kalkulatutako bestelako gastuak.

Ez da onartuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa gainditzen duen proposamenik. Hobekuntza beherantz egingo da, eta lizitatzaileen eskaintzan BEZa banakatuko da.

Kontratuaren prezioak prezio unitarioen zerrenda izango du, behar bezala banakatua, eta horiek izango dira kontratua gauzatzen den bitartean indarra izango dutenak. Prezio horiek aurkezten ez badira, ulertuko da lizitatzaileak IRUNVIren aurrekontuan ageri direnak aurkeztu dituela, bere proposamen ekonomikoan jasotako prezioaren jaitsiera ehuneko berean.

2.2.- Badago kontratu honen ondoriozko betebehar ekonomikoei aurre egiteko behar den aurrekontu kreditua.

Kontratuaren xede diren obrak 0710.433.01.152.10.2022 aurrekontu partidaren kargura finantzatuko dira. IRUNVIri egindako kudeaketa orokorra egiteko enkarguari dagokio partida hori. Halaber, IRUNVIk behar diren kredituak gordeko ditu eragina izango duten hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

2.3.- Kontratuaren prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da, eta ezin izango du IRUNVIk ezarritako lizitazio tasa gainditu.

Ondorio guztietarako, ulertuko da kontratuaren prezioaren barnean daudela enpresa kontratistak kontratatutako lana behar bezala gauzatzeko egin behar dituen zuzeneko nahiz zeharkako gastu guztiak, obren ikuskapen eta zuzendaritza lanak egiteko tasak eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoa den beste edozein tasa, bai eta era guztietako zergak eta lizentziak ere.

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

3.1. Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturara egikarituko da.

3.2. Kontratu honetan ez da preziorik berrikusiko.

4.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

SPKLren 63. artikuluak xedaturikoaren arabera, gardentasuna izateko eta beharreko dokumentazioaren bidez kontratu jardueran sarbide publikoa ziurtatzeko, Etxebizitzarako Elkarte Publikoa/ Sociedad Pública de Vivienda de Irun, SAU (IRUNVI) elkartearen kontratatzailearen profilean honako helbide honen bidez sartu ahal izango da: http://www.irun.org/irunvi/caste/concurso_perfil.asp

5.- KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEA. KONTRATUAREN LUZAPENAK

5.1. Kontratua egikaritzeko epea HIRU (3) HILABETEKOA da, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta hurrengo egunetik hasi eta obraren harrera akta sinatu arte, kontratistak baldintzatzailerik edo egin gabeko lanik izan gabe. Ulertuko da kontratista berandutu egin dela aipaturiko epe hori igarotzen bada, eta ez da beharrezkoa izango IRUNVIk aldez aurretik ohartaraztea.

5.2. Indarreko legerian aipatzen diren kasuetan bakarrik luzatu ahal izango da kontratuaren epea, bertan ezarritako baldintzak betetzen badira.

6.- JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenak eta komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, bai kontratatzailearen profilean argitaratuta, bai jakinarazpen elektronikoaren bidez lizitatzaileak emandako posta elektronikoaren helbidera.

7. - KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio organoa IRUNVIren Administrazio Kontseilua izango da, horretarako izendatutako kontratazio mahaiak lagunduta, eta egokitzat hartzen duen aholkularitza teknikoa ere izango dute.

8.- KONTRATAZIO MAHAIA

Hauek izango dira Kontratazio Mahaiko kideak: Administrazio Kontseiluko lehendakaria edo hark eskuordetzen duen sailburua, zuzendari-kudeatzailea edo hark eskuordetzen duena, Administrazio Saileko burua edo hark eskuordetzen duena, eta sozietatearen aholkulari juridikoa edo hark eskuordetzen duena, mahaiko idazkari-lanak egingo dituena. Kontratazio-mahaiaren partaideak izango dira, halaber, hala nahi duten sailburuak. Kontratazio-mahaiak, proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen eta kontratuaren xedearekin zerikusia duten txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

9.-KONTRATUAREN ARDURADUNA

SPKLren 62.1 artikuluaren arabera, kontratuaren arduradunak gainbegiratuko ditu lanak, erabakiak hartuko ditu eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, erakunde kontratatzaileak ematen dizkion gaitasunen esparruan betiere, hitzartutako prestazioa behar bezala burutuko dela ziurtatzeko. Horrez gainera, honako eginkizun hauek izango ditu kontratuaren arduradunak:

a) Baldintza teknikoen agiria eta kontratuan edo xedapen ofizialetan jasotako gainerako baldintzak interpretatuko ditu.

b) Kontratuak xede dituen zerbitzuak emateko beharreko bitartekoak eta antolakuntza izatea eskatuko du.

c) Kontratuaren xedeak betetzeko beharreko aginduak emango ditu.

d) Zerbitzuak behar bezala garatzeko sartu beharreko aldaketak proposatuko ditu.

e) Zerbitzuak ematen diren bitartean sortzen diren gorabehera guztiak tramitatuko ditu.

f) Bere zerbitzuak behar bezala garatzeko eta haiek gainbegiratzeko egokitzat hartzen dituen bilera guztiak deituko ditu. Bilera horietara nahitaez joan beharko du enpresa esleipendunaren ordezkariak, zerbitzua betetzean esku hartzeren bat duten enpresako fakultatiboek, teknikariek edo espezialistek lagunduta.

10.-KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA BETETZEA

SPKLren 62. artikuluaren arabera, IRUNVIren Zuzendaritza-Kudeatzailetza izango da kontratuaren jarraipenaz eta ohiko betetzeaz arduratuko den unitatea.

11.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio Klausula Berezien Agiriak, ESTUDIO BELDARRAIN S.L. enpresak idatzitako Obra Proiektua, Irungo Udalak 2022ko otsailaren 23an emandako lizentzia eta gainerako dokumentazio osagarria Kontratatzailearen Profilean egongo dira eskuragarri, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Proposamenak aurkeztu aurretik, enpresa interesdunak IRUNVIrekin harremanetan jarri ahal izango dira lizitazio honen inguruabar zehatzei buruz hitz egiteko.

Interesa duen enpresa batek, beharreko epean, informazio gehigarria eskatzen badu agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruz, SPKLren 138. artikuluak eta HAKLAOren 78. artikuluak xedaturikoa beteko da.

Pleguaren eta dokumentazio osagarriaren inguruan eskatutako informazio eskaintzak aurkezteko finkaturiko epea bukatu baino sei egun lehenago emango da gutxienez, baldin eta gutxienez hamabi egun lehenago egin bada eskaera hori.

Eskatzen dena Administrazio Klausula Berezien Agirian, obrak egikaritzeko proiektuan edo gainerako dokumentazioan jasotakoaren argibideak badira, erantzunek izaera loteslea izango dute eta Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira.

Kontratu espedienteari buruzko informazio guztia eta IRUNVIren kontratu jarduerarekin loturiko beste edozein datu eta informazio Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira, SPKLren 63. artikuluak xedaturikoarekin bat.

12.- ENPRESA LIZITATZAILEAK.

12.1. Sektore publikoarekin soilik kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiarrak nahiz atzerritarrak izan, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, SPKLren 71. artikuluan jasotakoetatik kontratatzeko debekuren bat ez badute eta agiri honetan eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badute, edo horrelakorik eska daitekeen kasuan, behar bezala sailkatuak baldin badaude. Kontratu jakin bat egiteko beharreko kaudimena frogatzeko, enpresaburuak beste erakunde batzuetara jo dezake haien kaudimena eta baliabideak erabiltzeko, edozein dela ere haiekiko duen harreman juridikoa. Nolanahi ere, kasu horietan kaudimen eta baliabide horiek kontratua egikaritzen den denbora guztian egiazki erabil ditzakeela frogatu beharko du, eta gainera beste erakunde horrek ez du kontratatzeko inolako debekurik izan behar, SPKLren 75. artikuluak xedaturikoarekin bat.

Lizitatzaile bakoitzak eskaera bakarra eta proposamen bakarra aurkeztu ahal izango ditu. Beste batzuekin batera aldi baterako enpresa elkarte baten barnean ere (ABEE) ezin izango du parte hartze edo proposamen eskaerarik sinatu, banaka egin badu edo ABEE batean baino gehiagotan baldin badago.

Arau horiek ez badira betetzen, lizitatzaile horrek sinaturiko eskaera edo proposamen guztiak baztertu egingo dira, bai eta hura kide duten guztiak ere.

12.2. Pertsona juridikoak, kontratuaren prestazioak haien Estatutuen edo sorrera arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedeen edo jarduera esparruaren araberakoak baldin badira bakarrik izan daitezke kontratuaren esleipendun.

12.3. Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak kontratuaren esleipendun izan daitezke, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera gaituta badaude kontratu honen prestazioak gauzatzeko. Estatu bateko legediak estatu horretan ezarrita dauden enpresei baimen bereziren bat izatea edo organizazio jakin batekoak izatea eskatzen badie dena delako zerbitzu hori emateko, enpresek egiaztatu beharko dute betetzen dutela baldintza hori.

12.4. Europar Batasunekoak ez diren Estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu ez duten Estatuetako pertsona fisikoek edo juridikoek dagokion txostenaren bidez justifikatu beharko dute enpresa atzerritarraren jatorri Estatuak ere Espainiako enpresen parte hartzea onartzen duela Espainiako sektore publikoaren pareko sektore publikoko erakundeekin kontratatzerakoan, antzeko moduan. Espainiak kanpoan duen Bulego Ekonomiko eta Komertzialak egingo du txosten hori.

12.5. Aldi baterako enpresa elkarteak. Kontratazio organoak helburu horretarako sortzen diren aldi baterako enpresa elkarteekin kontratatu ahal izango du. Ez da beharrezkoa enpresa horiek eskritura publikoaren bidez formalizatzea kontratua haien alde esleitzen ez den bitartean. Aldi baterako elkartuta lehiatzen diren enpresaburuek betebehar solidarioa izango dute IRUNVIren aurrean, eta ABEEren izenean ordezkari edo ahalordedun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko besteko ahalordeak izango dituena kontratua amaitu arte.

Lizitazio prozedura izapidetzean eta kontratua egin aurretik aldi baterako enpresa elkartearen osaera aldatzen bada, enpresa elkarte hori prozeduratik kanpo geratuko da. Ez da osaeraren aldaketatzat hartuko enpresen parte hartzearen aldaketa, baldin eta sailkapen berari eusten bazaio. Aldi baterako enpresa elkartea kontratuaren esleipen prozeduratik kanpo geratuko da, halaber, hura osatzen duten enpresetako bati edo gehiagori kontratatzeko debekua ezartzen bazaie.

Aldi baterako enpresa elkarte bateko enpresa bat edo batzuk bat-egite eragiketetan, banantze eragiketetan eta jarduera adar baten ekarpen nahiz transmisioa egiteko eragiketetan sartzeak ez du eragotziko hark adjudikazio prozeduran jarraitzea. Sozietate bereganatzaileak, bat-egitearen emaitza denak, banantzearen onuradunak edo jarduera adarraren eskuratzaileak, ez badira aldi baterako enpresa elkartea osatzen duten enpresetakoak, jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, ez dute kontratatzeko debekurik izan behar eta eskatutako kaudimen, gaitasun edo sailkapenari eutsi beharko diote.

Kontratazio mahaiak edo –bestela– kontratazio organoak, bere eginkizunetan diharduela kolusioko ustezko zantzuak aurkitzen baditu aldi baterako elkarte batean bilduta lehiatzen diren enpresen artean, errekerimendua egingo die enpresa horiei, 10 laneguneko epean berariaz eta arrazoibideak emanez justifika ditzaten elkartuta lehiatzeko arrazoiak. Kontratazio mahaiak edo kontratazio organoak, enpresen justifikazioa aztertu eta haien arteko kolusioko zantzu funtsatuak badaudela irizten badio, horiek Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari helaraziko dizkio, SPKLren 150.1 artikuluaren hirugarren paragrafoak aipatzen duen prozedura sumarisimoa gauzatu baino lehen, haiei buruzko iritzia eman dezan.

Aldi baterako enpresa elkartearekin kontratua formalizatu ondoren, SPKLren 69.9 artikuluan jasotako arauak beteko dira.

12.6. Prozedura izapidetzean eta kontratua esleitu aurretik lizitatzailearen nortasun juridikoa iraungitzen bada bat-egiteagatik, banantzeagatik edo enpresaren ondarearen transmisioagatik, sozietate bereganatzaileak, bat-egitearen emaitza denak, banantzearen onuradunak edo jarduera adarraren eskuratzaileak hartuko du haren lekua prozeduran, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badu, ez badu kontratatzeko debekurik eta baldintza agiri honetan lizitazioan parte hartu ahal izateko eskatutako kaudimen ekonomikoa, teknikoa edo profesionala baditu.

13.- GAITASUN ETA KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA ETA EKONOMIKO FINANTZARIOA IZATEARI BURUZKO INGURUABARRAK

13.1. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 77.1 artikuluan jasotakoaren arabera, 500.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra kontratuetarako, enpresaburua kontratuaren xedearen arabera dagokion taldean edo azpitaldean sailkatuta egoteak (kontratuaren agirietan jasoko dena), egiaztatuko ditu kontrataziorako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa. Horrelakoetan, enpresaburuak bi modutan egiaztatu ahal izango du bere kaudimena: kontratuari dagokion sailkapen taldean edo azpitaldean obra kontratista gisa sailkatuta dagoela erakutsita, edo lizitazio iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eskatu diren eta kontratuaren agirietan zehaztu diren berariazko kaudimen baldintzak betetzen dituela egiaztatuta.

Horretarako, lizitazio honetan parte hartu nahi duten enpresaburuek kontratatzeko kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa egiaztatu ahal izango dituzte, ondoren aipatzen diren justifikazio bitartekoen bidez.

Enpresaburuaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa honela egiaztatu beharko da, SPKLren 87.1 artikuluan ezarritako moduan:

a) Urteko negozio-bolumena, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako onenari dagokiona, enpresaburua eratzeko edo jarduerak hasteko dataren arabera, eta eskaintzak aurkezteko dataren arabera, 402.000,00 eurokoa edo gehiagokoa.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena , onartutako eta Merkataritza Erregistroan utzitako urteko kontuen bidez egiaztatuko da enpresaburua aipatu Erregistroan inskribatuta baldin badago, edo bestela, inskribatua behar duen Erregistro Ofizialean utzitako kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek beren inbentario liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute beren negozioen bolumena, aipatu liburuak eta kontuak Merkataritza Erregistroak legeztatuta baldin badaude.

Enpresaburuaren kaudimen teknikoa edo profesionala honela egiaztatu beharko da, SPKLren 88 artikuluan ezarritako moduan:

a) Azken bost urteetan egindako hiru obraren zerrenda. Obra horiek kontratuaren sailkapen talde edo azpitalde berekoak edo kontraturako talde edo azpitalde garrantzitsuenekoak izan behar dute. Egindako obra horien urteko zenbateko metatua, gehien egin den urtean, kontratuaren batez besteko urteko zenbatekoaren % 70 edo gehiago izango da, ondo egin izanaren ziurtagiriek abalatuta.

Enpresa sortu berrien kasuan, hau da, bost urte baino gutxiago dituztenean, haien kaudimen teknikoa erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da, obra egikaritzeko zein makineria, material eta ekipo tekniko izango dituen adierazita, eta alderdi hori egiaztatzeko dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute kontratazio organoaren mendeko zerbitzuek eskatzen dietenean.

14.- PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK

Parte hartzeko eskaera eta, hala badagokio, proposamena aurkezteak honako hau esan nahi du:

- Obra Proiektuaren eta kontratuaren gainerako dokumentuen klausula guztiak baldintzarik gabe onartzen direla, erabat eta salbuespenik edo erreserbarik gabe.

-Bere erantzukizunpean adierazten duela aurkeztutako datu guztiak zuzenak direla eta kontratazioaren xedeko prestazioak kontratatzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

-Kontratazio mahaiari eta organoari baimena ematen zaiela Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Era berean, esan nahi du enpresa lizitatzaileak lurrak ezagutu dituela, bertara zuzenean joanda eta/edo bestelako baliabide osagarrien bidez, eta badakiela haiek alderdi fisikoan zein aukera eskaintzen dituzten eskatutako garraio, instalazio eta ur huste zerbitzuei eta obrak egiteko gainerako beharrei dagokienean.

IRUNVIk, eskaintzak aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean, lurren kokalekua jakinaraziko dio eta dokumentazioari eta aplikatzekoa den araudiari buruzko informazioa emango dio eskatzen duen edozein enpresa interesduni. Horrenbestez, lurra eta obraren inguruabarrak, kontratuaren edozein baldintza, haren barnean dauden eranskinak edo aplikatzekoa den legeria eta arauak ez dituela ezagutzen esateak ez du enpresa kontratista hura betetzetik salbuetsiko.

Prozedura honetan ezin izango dute parte hartu, zuzenean nahiz zeharka eurekin loturiko enpresen bidez, zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten edo kontratazio prozeduraren prestaketan kontratazio organoari aholku ematen aurrez jardun duten enpresek, parte hartze horrek lehia faltsutu dezakeenean edo gainerako enpresa lizitatzaileekiko tratu pribilegiatua ekar dezakeenean.

Enpresa lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartea sortuta ere ezin izango du inolako proposamenik sinatu, bakarka aurkeztu badu. Arau horiek ez badira betetzen, automatikoki kanpoan geldituko dira hark aurkeztutako proposamen guztiak.

15.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

15.1. Lizitazio eta kontratazio elektronikorako sistemak aukera ematen du parte hartzeko proposamenak eta eskariak aurkezteko, dokumentuak bidaltzeko eta jasotzeko eta kontratuak

sinatzeko, eta eskuragarri dago IRUNVIren erakunde atariaren bidez, honako helbide honetan: http://www.irun.org/irunvi/caste/concurso_perfil.asp

Parte hartzeko proposamenak eta eskaerak aurkezteko, lizitazio eta kontratazio elektronikorako sistema hori erabili beharko du lizitatzaileak edo haren ordezkariak, I. eranskinean jasotako jarraibideen arabera, eta proposamenak aurkezteko epearen azken eguna arte aurkeztu ahal izango dira proposamen horiek. Epearen azken eguna laneguna ez bada, hurrengo lanegunera luzatuko da epea.

15.2. Behin entregatu ondoren, dokumentazioa ezin izango da erretiratu. Proposamenak ez dira onartuko artxibo elektronikoek baldintza agiri honetan artxibo elektroniko bakoitzerako adierazitakoaz bestelako dokumentazioa badaramate.

15.3. Epea: Proposamenak aurkezteko epea hogeita sei (26) egun naturalekoa izango da, kontratuaren lizitazio iragarkia Kontratatzailearen Profilean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta.

15.4. Lizitatzaileek adierazi beharko dute eskaintzan jasotako zein dokumentu (edo haien zein zati) edo datu diren konfidentzialtzat jotzeko modukoak, eta eskaintzako dokumentu edo datu guztien konfidentzialtasun adierazpen generikoak ez dira onartuko. Konfidentzial izaera hori argi eta garbi islatu behar da (azalean, ertzean idatzia edo argi identifikatzeko beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan, eta izaera hori justifikatzen duten arrazoiak azalduko dira gainera. Ez dira konfidentzialtzat hartuko lizitatzaileek berariaz halakotzat adierazi ez dituzten dokumentuak.

15.5. Parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak zuzendu egin beharko dituzte lizitatzaileek, kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak eskatzen badie, halakorik ez bada aurkeztu edo aurkeztutakoa ez badago behar bezala beteta. Era berean, esleipendun izateko proposatutakoak ere kontratua esleitu aurretik zuzendu ahal izango ditu parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumenturen bat ez badu aurkeztu edo aurkeztutakoa osorik ez badago.

Bi kasu horietan lizitatzaileari 3 laneguneko epea emango zaio, okerra zuzentzeko errekerimendua jasotzen duen egunaren hurrengotik aurrera kontatuta.

Eskatutako epe horretan ez badu zuzentzen, kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak ulertuko du lizitatzaileak berak egindako eskaintzari uko egin diola.

15.6. Proposamena **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKOTAN** aurkeztuko da. Artxibo bakoitzaren barnean, aparteko horri edo fitxategi batean artxiboaren edukia jasoko da, ondoren adierazten dena zenbakiz azalduta (HAKLAO, 80.1 artikulua):

1. ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA"

a) Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB): SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Adierazpen hori **II. eranskinean** jasotako jarraibideen arabera bete beharko da eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuko du, eranskin horretan adierazten den formulario ereduaren arabera betiere.

Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuetara jotzen badu haien kaudimena eta baliabideak erabiltzeko, haietako bakoitzaren EKABa aurkeztu beharko du.

b) Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio: Bi enpresa edo gehiago aldi baterako enpresa elkartea sortuta aurkezten badira lizitaziora, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute bertan adierazita sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak eta haietako bakoitzak duen partaidetza, bai eta formalki aldi baterako enpresa gisa eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere, esleipendun izanez gero (SPKLren 69. artikulua eta HAKLAOren 24. artikulua). Elkartea eratzen duten enpresetako bakoitzaren ordezkariak sinatu beharko du aipaturiko dokumentu hori. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere EKABa aurkeztu beharko du. Baldintza agiri honen **III. eranskinean** dago alde baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

c) Enpresa lizitatzailearen kide den enpresa taldeari buruzko berariazko erantzukizunpeko adierazpena, talde berean dauden sozietate guztiak jasotzen dituena, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan zehaztutako baldintzetan. Enpresa talde bakar batean ere ez badago, hori azalduko da adierazpenean. **IV. eranskin** gisa doa.

d) Konfidentzialtzat jotzen diren lizitatzaileen dokumentuei eta datuei buruzko adierazpena: enpresa lizitatzaileek adierazi egin beharko dute, hala behar badu, adierazpen osagarri baten bidez, beren iritziz, aurkeztutako zein dokumentu administratibo eta tekniko eta datu hartu behar diren isilpekotzat. Gainera, gorabehera hori argi eta garbi islatu behar da (azalean, ertzean idatzia edo beste edozein eratan) halakotzat hartutako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak isilpekotzat hartu ahal izango dira haiek hirugarren pertsonei zabaltzea bidezko merkataritza interesen aurkakoa denean, sektoreko enpresen artean lehia zintzoa kaltetzen duenean. Adierazpen hori ez bada aurkezten, ulertuko da dokumentu edo datu bakar batek ere ez duela izaera hori. **V. eranskin** gisa doa.

e) Atzerriko langileek aurkeztu behar duten dokumentazioaren berezitasunak: Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letrak aipagai duen erantzukizunpeko adierazpenaz gainera, ondoren zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute:

Espainiarrak ez diren enpresa guztiek honako hau aurkeztu beharko dute:

- Zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria, eta uko egingo diote, hala badagokio, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLren 140.1.f artikulua).

Europar Batasunetik kanpoko enpresek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetakoak ez diren enpresek, gainera, honako hau aurkeztu beharko dute:

- Enpresak helbidea duen lekuko Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo Kontsul Bulegoak emandako txostena. Bertan adieraziko da, enpresak aldez aurretik egiaztatu ondoren, Tokiko Erregistro profesional, komertzial edo antzekoan

inskribatuta dagoela, edo besterik ezean, kontratuaren helburu diren jardueren arloko tokiko trafikoan jardun ohi duela.

- SPKLren 68. artikuluak aipagai duen elkarrekikotasunari buruzko txostena, erregulazio harmonizatua duten kontratuetan izan ezik, kasu horretan Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkari Nagusiak egindako txostena aurkeztu beharko da, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Hitzarmena sinatu duten Estatu izaerari buruzkoa. Kasu horretan, enpresa esleipendunak sukurtsala ireki beharko du Espainian, bere eragiketetarako ahaldunak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko dira.

f) Langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien adieraztea: Lizitatzaileak adierazi beharko du kontratuaren xedea beteko duten langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien eta hitzarmen hori sektore mailakoa edo enpresakoa den. Lizitatzaileak adierazitako hitzarmena enpresakoa bada, adierazi beharko da enpresakorik ez izanez gero, zein sektoreko hitzarmena aplikatuko litzaiekeen. **VI. eranskin** gisa doaz.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango dute dokumentuen bidez justifikatzeko erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako baldintzak betetzen dituztela. Lizitatzaileak beharreko epean aurkeztuko du dokumentazioa, gehienez ere hamar laneguneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren hurrengotik aurrera kontatuta. Errekerimendu hori ez bada jarritako epean behar bezala betetzen, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela eta prozeduratik kanpo gelditukо da.

2. ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "BALIO JUDIZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA":

Artxibo horretan, balio judizioaren arabera baloratu beharreko proposamena deskribatzen duen dokumentazioa sartuko dute lizitatzaileek, Agiri honen 18.2 klausulan xedatutako edukiari jarraiki.

3. ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULAK ETA PUNTUAZIO AUTOMATIKOAK APLIKATUTA EBALUA DAITEZKEEN DOKUMENTUAK":

Artxibo horretan proposamen ekonomikoa deskribatuko duen dokumentazioa eta formulak eta puntuazio automatikoak aplikatuta ebalua daitezkeen egiaztagiriak sartuko dituzte lizitatzaileek, Agiri honen 18.1 klausulan xedatutako edukiari jarraiki.

16.- PROPOSAMENAK IREKI ETA AZTERTZEA.

16.1. KONTRATAZIO MAHAIA. Jasotako proposamenak aztertzeko, kontratazio mahaia eratuko da, eta baldintza Agiri honen 8. klausulan zehaztutako moduan osatua egongo da.

16.2. PROPOSAMENAK AZTERTZEA. Kontratazio mahaiak aldez aurretik aztertuko du 1 zenbakidun artxibo elektronikoaren edukia eta beharreko denboran eta moduan aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko ditu. Aipaturiko egiaztapen hori egiteko, gutun azalak irekitzeko aginduko du mahaiburuak. Mahaiak akats materialak sumatzen baditu

aurkeztutako dokumentazioan, enpresa interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez hiru lanegunekoa izango den epea emango dio enpresa lizitatzaileari okerra zuzen dezan.

Kontratazio mahaiak, aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatu eta, hala badagokio, sumatutako okerrak eta omisioak zuzendu ondoren, lizitazioan zein enpresa onartu diren erabakiko du, baztertutakoei eta baztertzeko arrazoiei buruz berariazko adierazpena eginda.

Hala badagokio, kontratazio mahaiak 2 zenbakidun artxibo elektronikoak irekiko ditu (balio judizio bidez baloratu beharreko dokumentazioa). 2 zenbakidun artxibo elektronikoak ireki ondoren, haietan jasotako dokumentazioa emango zaio haiek baloratzeaz arduratuko den organoari.

Kontratazio plataforman adierazitako lekuan, egunean eta orduan, kontratazio mahaiak 3 zenbakidun artxibo elektronikoak irekitzeko ekitaldi publikoa egingo du; onartutako enpresek aurkeztutako proposamen ekonomikoak dituzte artxibo horiek.

Ekitaldi horretan, eta 3 zenbakidun artxibo elektronikoak ireki aurretik, 1 zenbakidun artxibo elektronikoetako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatu ondoren lizitaziorako zein enpresa onartu eta baztertu diren jakinaraziko da eta 2 zenbakidun artxibo elektronikoetan jasotako dokumentazioak aipagai dituen proposamenen alderdi teknikoen balorazioaren berri emango da.

16.3. PROPOSAMENEN KALIFIKAZIOA.- Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo lizitatzaileak onartzen badu hori bideraezin bihurtzen duen akats edo hutsen bat dagoela, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoituaren bidez (HAKLAOren 84. artikulua).

Bereziki, eskaintza kanpoan uzteko arrazoi izango da, gainerako proposamenetik bereiz, balio judizioaren mende dauden balorazio irizpideei buruzko dokumentazioa daraman artxibo elektronikoa aurkezteko betebeharra ez betetzea.

16.4. PROPOSAMENEN EBALUAZIOA.- Kontratazio mahaiak, baldintza agiri honen 18. klausulan garrantziaren eta haztapenaren arabera beheranzko hurrenkeran jasota dauden irizpideei jarraiki ebaluatuko ditu proposamenak, eta horretarako, egokitzat hartzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, eta egokitzat hartzen duen proposamena egingo dio kontratazio organoari.

Uste baldin bada puntuazio handiena izan duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxuegia dela, 18. klausulan adierazitakoaren arabera, hala badagokio, SPKLren 149. artikuluan eta HAKLAOren 85. artikuluan aurreikusitako tramitazioa egingo da. Haiei dagokienez, aipatutako artikulu horietan xedaturikoa beteko da.

BI eskaintza edo gehiagoren artean berdinketa izaten bada, berdinketa hori hausteko, SPKLren 147.2 artikuluan jasotako irizpide sozialak aplikatuko dira ordenan, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unearekin lotuak betiere.

17.- ESKAINTZAK BALIO ANORMALAK EDO NEURRIGABEAK DITUELA USTE IZATEKO IRIZPIDEAK.

Eskaintzen izaera anormala edo neurrigabea SPKLren 149. Artikuluak eta urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 85. artikuluak xedaturikoaren arabera interpretatuko da.

Justifikazioak jaso ondoren, lizitatzaileak bere eskaintzari eusteko argudiatu dituen arrazoiak xehe aztertuko dituen txosten teknikoa eskatuko du Mahaiak.

Neurrigabetzat hartutako eskaintza aurkeztu duten kontratisten justifikazioak eta haiek aztertzen dituen txosten teknikoa ikusi ondoren, kontratazio mahaiak eskaintza onartzeko edo baztertzeko proposamena egingo dio kontratazio organoari, arrazoiak azalduta. Anormaltzat edo neurrigabetzat hartutako proposamenak ez dira eskaintzen balorazioan sartuko SPKLren 149. artikuluan zehaztutako prozedura bete arte.

SPKLren 107.2 artikuluaren arabera, esleipendunaren eskaintzan hasiera batean ustezko anormaltasun bat dagoenean, eskainitako amaierako prezioaren % 10 izango litzateke jarri beharreko guztizko bermea.

18.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

18.1.- Irizpide objektiboak, **formula eta puntuazio automatikoen bidez ebaluagarriak**, prozedura irekia esleitzeko oinarri izango direnak, honako hauek izango dira (58 puntu gehienez).

18.1.1.- Prezio txikiagoa eskaintzea. - 48 puntu gehienez.

Balorazioa egiterakoan, puntuazio handiena emango zaio eskaintza hoberenari, baldin eta honako hobekuntza hauek badakartza onartutako eskaintzei dagokienean:

- Lizitatzaile bakarra dagoenean, gutxienez % 15eko hobekuntza lizitazio tasan.
- Bi lizitatzaile daudenean, batek gutxienez % 15eko hobekuntza bestearen aurrean.
- Hiru lizitatzaile edo gehiago baldin badaude, gutxienez % 15eko hobekuntza onartutako eskaintzen batez bestekoarekiko, kalkulua egiterakoan eskaintza hoberena eta txarrena kanpo utzita.

Aurreko kasu eta ehuneko horiek aplikatuta sortutako balio erreala edo teorikoa hartuko da eskaintza hoberenentzat.

Gainerako eskaintzen puntuazioa proportzionalki egingo da, ondoren ageri den matematika formula honen arabera, zero puntura iritsi arte eskaintzak lizitazio aurrekontua berdintzen baldin badu:

$$P_n = P_{\max} \times \frac{TL - V_n}{TL - V_{\min}}$$

Honetan,

P_n eskaintzak lortutako puntuazioa da.
P_{max} irizpide honekin eman daitekeen puntuazio handiena da.
TL lizitazio tasa da.
V_n eskaintzaren balioa da.
V_{min} IRUNVIrentzat balio egokiena da.

18.1.2.- Urtebeteko gutxieneko berme epea hobetzea, gehienez ere beste lau urtez. 10 puntu gehienez.

- Bermearen gutxieneko epea beste urte batean hobetzeagatik, 2,5 puntu emango dira.

- Bermearen gutxieneko urtebeteko epea beste bi urtetan hobetzeagatik, 5 puntu emango dira.

- Bermearen gutxieneko urtebeteko epea beste hiru urtetan hobetzeagatik, 7,5 puntu emango dira.

- Bermearen gutxieneko urtebeteko epea beste lau urtetan hobetzeagatik, 10 puntu emango dira.

18.2.- Irizpide objektiboak, **balio judizio bidez ebaluagarriak**, prozedura irekia esleitzeko oinarri izango direnak, honako hauek izango dira (42 puntu gehienez):

18.2.1.- Memoria teknikoa. Honako atal hauek garatu beharko ditu (gehienez 42 puntu):

- Obrak egitean erabiliko dituzten baliabideen eta prozeduren azalpen zehatza, jardueren iraupenaren kalkulua dagokion Gantt diagramarekin. Eskaerak planifikatzea, formalizatzeko datak adierazita, obrak jarritako epean egin ahal izateko. Lan bakoitzerako kalkulatutako epeak beteko direla bermatzeko neurriekin osatu beharko da planning-a, bai eta aurreikusitako epeetan desbideratzerik antzemanez gero abian jarri beharreko neurri zuzentzaileekin ere. Honako hauek baloratuko dira: jarduketan egin beharreko lan zehatzei buruzko azalpena zehaztea, eraikinaren saneamenduarekin loturiko OBRA OSAGARRIEI BURUZKO ERANSKINEAN adierazitako obrekin koordinatzea (obra horiek Jabekideen Komunitateak egin beharrekoak dira) eta kontratua behar bezala burutzeko garrantzi eta berezitasun handieneko ekintzak edo ekintza estrategikoak antzematea. Lan esanguratsuenak eta eragin handiena dutenak egiteko modua eta erabili beharreko baliabideak argi eta garbi azaltzea baloratuko da. Arreta berezia jarriko da antolakuntzan, oinezkoei eta aldameneko lursaileko bizilagunei ahalik eta kalte txikiena eragiteko, eta saihets daitezkeen kalteak edo eragozpenak ez sortzeko proposatutako bitartekoetan. 15 puntu gehienez.

- Proiektuaren azterketa zehatza, haren berezitasunei arreta berezia eskainiz. Egin beharreko lanen azterketa eta, halakorik balego, kontratua betetzeko beharrezkoak diren aurreikusi gabeko lanen zerrenda. Proiektua eta haren inguruabar guztiak ondo ezagutzen direla frogatzea baloratuko da, bai eta proiektuaren berezitasunak zehatz eta xehe azaltzea ere. Eraikinaren saneamenduarekin zerikusia duten OBRA OSAGARRIEN ERANSKINEAN adierazitako obrekiko koordinazioaren azterketa baloratuko da. Jabekideek Komunitateak egin beharrekoak dira obra horiek. Proiektuan jaso ez diren eta guztiz beharrezkoak diren partidak detektatzea ere

baloratuko da, eta haien kuantifikazio ekonomikoa aurkeztu beharko da. 15 puntu gehienez.

- Komunikazio plana, kontsultarako edo larrialdietarako kontaktuak adierazita, baita lanorduetatik kanpo ere. IRUNVIren eta kontratistaren artean informazio eta erantzun bideak hobetzeko proposatu diren neurriak baloratuko dira. Arreta berezia emango zaio edozein gorabeheraren kudeaketa planifikatzeko moduari, baita lanorduetatik kanpo eta asteburuetan ere. 5 puntu gehienez.

- Aurreikusi ezin diren arrazoiengatik, salbuespenezko arrazoiengatik edo proiektuan deskribatutakoa bezalako obra egikaritze baten ohiko egoerez bestelako arrazoiengatik, aurreikusitako planning-ean desbideratzeak gertatuz gero, ezarritako epea beteko dela ziurtatzeko hartu beharreko salbuespenezko neurriak azaltzea. Horretarako proposatu diren salbuespenezko ekintzen proposamenak baloratuko dira, eta eskaintzan sartuta daudela ulertuko da. 7 puntu gehienez.

Memoria teknikoa entregatzeko baldintzak:

- Gehienez 20 orrialde izango ditu alde batean idatziak, planning-a barne; hau da, 19 orrialde A4 formatuan eta 1, planning-ari dagokiona, tamaina berean edo handiagoan.

- Letraren gutxieneko tamaina: 10, testu orrietarako.

- Planning-a: Gantt diagramaren barrak bakarrik sartu beharko dira. Diagrama ulertzeko ezinbestekoak diren testuetan, letraren gutxieneko tamaina 8 izango da. Entregatzeko baldintza horiek betetzen ez badira, ez da baloratuko dokumentu honetan jasotako informazioa.

- Balio judizio bidez baloratu beharreko esleipen irizpideekin loturik baldintza agiri honetan ezarritako gehieneko hedadura (azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe) baina handiagoa duten proposamenak ez dira, inolaz ere, prozeduratik kanpo utziko. Adierazitako gehieneko hedadura hori gainditzen bada, onartutako gehieneko orri kopurua bitarte baloratuko da haien edukia.

19.-ESLEIPEN PROPOSAMENA

Behin proposamenak haztatutakoan, kontratazio mahaiak beheranzko ordenan sailkatuko ditu, eta puntuazio handiena duen hautagaiaren alde egingo du esleipen proposamena, eta kontratazio organoari aurkeztuko zaio.

SPKLren 139.1 artikuluak xedaturikoaren arabera, proposamenak aurkezteak esan nahi du kontratazio mahaiari eta organoari baimena ematen zaiela Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Esleipen proposamenak ez du proposaturiko lizitatzailearen alde inolako eskubiderik sortuko IRUNVIren aurrean.

20.- KONTRATATZEKO GAITASUNA EGIAZTATZEA.

Mahaiak puntuaziorik onena lortu duen enpresari eskatuko dio, jakinarazpen elektronikoaren bidez, behin betiko bermea jartzeko, hau da, SPKLren 75.2 artikuluan aipatzen den konpromisoa betetzeko (kaudimena kanpoko baliabideekin osatzea), eta aipatutako legezko testu horren 75.2 artikuluaren arabera kontratua betearazteko erabili edo jarri behar zituen baliabideak egiaz badituela egiaztatzen duten dokumentazioa aurkezteko, hori guztia hamar laneguneko epean, jakinarazpena bidaltzen denetik kontatzen hasita.

SPKLren 96. artikuluan ezarritakoaren arabera, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzioaren ziurtagiria izanez gero, indarreko ziurtagiria duten inskribatutako lizitatzaileek kontratazio deialdietan ez dute ziurtagiri horretan jasotzen diren datuei dagokien dokumentaziorik aurkeztu beharko, hain zuzen ere, eta kontrakorik egiaztatu ezean, enpresaburuaren gaitasun baldintzen gaineko dokumentazioa, hau da, bere izaerari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, trebezia profesional eta enpresa trebeziari, kaudimen ekonomikoari eta finantzarioari dagokienez, eta ez dute egiaztatu beharko ere egiaztagiri horretan agertu beharko liratekeen kontratatzeko debekuak ote dituzten edo ez. Hala ere, enpresaburuak klausula honetan eskatzen den eta aipatutako ziurtagirian agertzen ez den dokumentazioa aurkeztu beharko du, besteak beste, IRUNVIk berariaz eskatzen duena. Gainera, Mahaiak enpresari (edo ABEE osatzen duten enpresei) eskatuko die, Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta agertzeko obligazioa eskatzeko premiarik ez dagoenean, edo datuen edo dokumentuen arteko batzuk aipatutako Erregistroan inskribatuta agertzen ez direnean, epe horretan bertan honako dokumentazio hau aurkez dezaten:

a) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzen duten dokumentuak:

-Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna osaera edo aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan inskribatua, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

−Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala, edo harena egiten duena aurkeztu behar du.

b) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

c) Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Ekitaldi horretan alta emanda izatea Jarduera Ekonomikoen Zergan. Gainera, azkeneko ordainagiria aurkeztuko da, aipatutako zergaren matrikulan bajarik izan ez dela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, edo hala badagokio, salbuetsita dagoela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.

e) Behin betiko bermea jarri dela egiaztatzen duen agiria.

f) Atzerriko enpresek, gainera, zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

g) Kontratatzeko kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duen agiria, eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera, Agiri honen 13. klausulan aipatzen den dokumentazioa aurkeztuta. Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez egiaztatzeko (SPKLren 75. art.), frogatu egin beharko da kontratua gauzatzeko giza baliabide eta baliabide material horiek egiaz badituela, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuta.

h) 250 langile baino gehiagoko enpresek berdintasun plana dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

i) Langile finko ezgaituen kopuruari buruzko adierazpena. 50 langileko edo gehiagoko enpresek % 33ko edo hortik gorako ezgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba kuota betetzen dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, edo, osagarri gisa edo subsidiarioki, har daitezkeen neurriak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan eta hura garatzeko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Kontratua aldi baterako enpresa elkarte bati esleitzen baldin bazaio, hark eskritura publikoan eratua dagoela egiaztatu beharko du, bai eta elkarteari esleitu zaion IFZ ere, behin esleipena bere alde egin ondoren. Betiere, elkarte horren iraupena kontratuarenarekin bat etorriko da hura iraungi arte.

Lizitaziora Europar Batasuneko Estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoaren hitzarmena sinatua duen Estatu bateko enpresaburu atzerritarrak aurkezten direnean, bi eratan egiaztatu ahal izango dira haien gaitasuna, kaudimena eta debekurik ez izatea, hauxe da, bai Estatu kide bateko operadore ekonomiko baimenduen zerrenda ofizialean kontsulta eginez, bai aipaturiko alderdi horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztuta.

Aurreko dokumentu horien guztien jatorrizkoak aurkeztuko dira, edo bestela, kopia autentiko edo konpultsatuak, edo fotokopia soilak. Nolanahi ere, azken kasu horretan, ekonomikoki eskaintza egokiena aurkeztu duen lizitatzaileak arestian aipaturiko dokumentazio horren jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko ditu kontratua esleitu aurretik.

Aurkeztutako dokumentazioan konpontzeko moduko akatsak edo omisioak sumatzen badira, lizitatzaileari jakinaraziko zaio, eta gehienez hiru laneguneko epea emango zaio Kontratazio Mahaiaren aurrean zuzen ditzan.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizial batean izena emana duten enpresa lizitatzaileek ez dute a), b) eta g) ataletan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharrik izango. Salbuespen honek ziurtagiriaren bidez froga daitezkeen kaudimen eta gaitasunari buruzko frogagiriak soilik hartzen ditu.

Lizitatzaileak ez badu eskatutako dokumentazioa jarritako epean aurkeztu, ez badu zuzendu, hala bada, edo aurkeztutakoa aztertuta egiaztatu bada ez dituela baldintza agiri honetan zehaztutako baldintzak betetzen, ulertuko da eskaintza erretiratu egin duela, eta beraz,

kontratua ezin dela haren alde esleitu, eta hala badagokio, SPKLren 71.2 a) artikuluan jasotako kontratatzeko debeku kausan eroriko da. Bestalde, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zigor kontzeptuan. Kasu horietan Kontratazio mahaiak kontratazio organoari proposatuko dio esleipena hurrengo lizitatzaileari egitea, eskaintzak sailkatuta gelditu diren ordenan, IRUNVIrekin kontratatzeko gaitasuna duela egiaztatu ondoren, dagokion dokumentazioa horretarako jarritako epean aurkeztuta.

21.- BEHIN BETIKO BERMEA

21.1. SPKLren 145. artikuluak xedaturikoaren arabera eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak organo kontratatzailearen esku jarri beharko du esleitutako kopuruaren % 5eko bermea, BEZa kanpo.

Kontratuaren prezioa aleko prezioen arabera finkatzen bada, lizitazioaren gehieneko aurrekontua aintzat hartuta finkatuko da jarri beharreko bermearen zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo.

Behin-behineko prezioak dituzten kontratuen kasuan, finkatutako gehieneko prezioaren arabera kalkulatuko da ehunekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo.

Berme hori jartzeko epea 10 lanegunekoa izango da, aurreko klausulan aipaturiko jakinarazpena bidaltzen denetik aurrera kontatuta.

Esleipendunak jarritako bermea itzultzeko eskatu ahal izango du kontratua egikaritu eta baldintza agiri honetan ezarritako berme epea bukatu ondoren edo lizitazio fasean aurkeztu duen proposamenean ageri den epean.

SPKLren 108. artikuluan onartutako edozein modutan (eskudiruan, zor publikoaren balioak, kauzio abal edo asegurua) eta indarrean dagoen legeriak baimendutako baldintzetan eman ahal izango dira bermeak.

21.2. SPKLren 149.7 artikuluak agindutako kasua gertatuz gero, aurreko klausulan eskatutako behin betiko bermeaz gain, kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren % 5eko berme osagarria jarri beharko du esleipendunak.

Behin betiko bermerako ezarritako epe eta baldintza berdinetan jarriko da berme hori ere.

22.- KONTRATUA ESLEITZEA.

22.1.- Behin betiko bermea jarri ondoren eta zehaztutako dokumentazioa aurkeztutakoan, kontratazio organoak dokumentazioa jaso ondoko bost laneguneko epean esleituko du kontratazioa, gastu konpromisoa fiskalizatu ondoren.

22.2.-Esleipena arrazoitua izango da, hautagaiei edo lizitatzaileei bitarte elektronikoen bidez jakinaraziko zaie eta, aldi berean, IRUNVIren kontratatzailearen profilean argitaratuko da hamabost eguneko epean.

22.3. Kontratazio organoak lizitazioa bete gabe utzi ahal izango du, hala badagokio, kontratazio mahaiak eskatuta, baldintza agirian jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintzarik edo proposamenik ez badago.

22.4. Kontratazio organoak dagokion deialdia egina duen adjudikazio prozedurari uko egiten badio edo kontratu bat ez esleitzea edo ez egitea erabakitzen badu, hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko die.

Kontratazio organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahal izango du kontratua ez esleitzea edo ez egitea edo prozeduran atzera egitea. Halakoetan kalte ordaina emango zaie lizitazioan parte hartzeko gaitzat jo diren hautagaiei edo lizitatzaileei egin dituzten gastuengatik, baldin eta gastu horiek behar bezala justifikatuta badaude.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak daudenean soilik hartu ahal izango da kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia. Kasu horretan ezin izango da xede berdina duen beste lizitazio bat sustatu erabakia oinarritzeko adierazitako arrazoiek irauten duten bitartean.

Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatu edo esleipen prozedura arautzeko arauen ez betetzeren bat egon behar du, zuzendu ezin daitekeena, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoia. Atzera egitea ez da eragozpen izango berehala beste lizitazio prozedura bat hasteko.

22.5.-Esleipen hori zein epetan formalizatu behar den adieraziko da jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLren 153.3 artikuluaren arabera.

22.6.- Kontratuaren esleipena bi hilabeteko epean egingo da gehienez, proposamenak irekitzen diren egunaren hurrengotik aurrera kontatuta. Esleipen erabakia ez bada zehaztutako epean hartzen, eskaintza erretiratzeko eskubidea izango dute lizitatzaileek.

22.7. Aurkezten diren proposamenak (bai onartu direnak, bai ireki gabe baztertu direnak, bai ireki ondoren ezetsi direnak) lizitazioaren espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu ondoren, errekurtsoak aurkezteko epean halakorik aurkezten ez bada, eskaintzarekin aurkeztutako agiriak enpresa interesdunen eskura geratuko dira.

Urtebetean enpresa lizitatzaileek dokumentazioa eskatzen ez badute, suntsitu egin ahal izango da.

23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

23.1. Kontratua hamabost laneguneko epean formalizatuko da, esleipenaren berri ematen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, eta SPKLren 154. artikuluan adierazitako moduan argitaratuko da.

23.2. Kontratua lizitazioaren baldintzekin zehatz bat datorren dokumentuan formalizatuko da. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezin izango da sartu, inolaz ere, esleipenaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

Kontratua formalizatzeko dokumentua nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Bere formalizazioarekin burutuko da kontratua. Formalizatu aurretik ezin izango da, inolaz ere, kontratua gauzatzen hasi.

23.3. Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada jarritako epean formalizatzen, IRUNVIk lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko dio, BEZik gabe, zigor kontzeptuan; diru hori behin betiko bermearen aurka kobratuko da lehenengo, hura jarri bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71. artikuluaren 2. atalaren b) letran xedaturikoa.

Kasu horretan, kontratua hurrengo enpresa lizitatzaileari esleituko zaio eskaintzak sailkatuta gelditu diren ordenan, baldintza agiri honen 20. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta aurreko ataletan ezarritako epeak izango dira aplikagarri.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak IRUNVIri egotz badakizkio, kontratistari kalte-ordaina emango zaio atzeratzeak eragin dakizkiokeen kalte eta galerengatik.

24.- KONTRATUA EGIKARITZEA.

24.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. IRUNVIk pertsona bat izendatuko du obraren Zuzendaritza Fakultatiboaz arduratzeko; hark lanak ikuskatu, egiaztatu eta zainduko ditu, kontratatutako obra behar bezala egin dadin.

Bere lanak egiteko, zuzendaritza fakultatiboak hainbat laguntzaile eduki ahal izango ditu bere esanetara. Pertsona horiek beren titulu profesionalek edo dituzten ezagutza bereziek ematen dizkieten gaitasunen arabera ariko dira kontratuaren zuzendaritzan.

IRUNVIk, kontratua formalizatzen denetik hasi eta hamabost egun naturaleko epean jakinaraziko dio enpresa kontratistari kontratazio organoak zein zuzendaritza izendatu duen, eta zuzendaritza horrek gauza bera egingo du bere langile laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.

24.2.- KONTRATUA EGIKARITZEKO ARAU OROKORRAK

24.2.1- Obrak egitea. Obrak egitean hertsiki beteko dira baldintza Agiri honetan jasotako klausulak eta ESTUDIO BELDARRAIN S.L. enpresak idatzitako Obrak Egikaritzeko Proiektua, bai eta lizentziaren baldintzak eta obren Zuzendaritza Fakultatiboak proiektuaren interpretazio teknikoa eginez kontratistari emandako jarraibideak ere. Era berean, obrak eraikinaren saneamenduarekin zerikusia duten OBRA OSAGARRIEN ERANSKINEAN adierazitako obrekin koordinatuko dira. Obra horiek Jabekideen Komunitateak egin beharrekoak dira.

Obren zuzendaritza fakultatiboak enpresa kontratistari ematen dizkion aginduak, jarraibideak eta berriemateak idatziz jaso behar dira 24.8 f) klausulan aipatzen den aginduen liburuan; zuzendariak bere sinadurarekin baimendu beharko ditu.

Lanak egiten diren bitartean eta bermealdia amaitu arte enpresa kontratista izango da eraikuntzan sumatzen diren akats guztien erantzulea.

24.2.2.- Lanen eta kalteen erantzukizuna. Enpresa adjudikaziodunak egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna edukiko du. Halaber, kontratua gauzatzean kontratistak hutsik edo okerrik egiten badu, metodo ezegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki egiten baditu eta ondorioz IRUNVIk edo hirugarren batek kalterik jasaten badu, bera izango da erantzulea. Hirugarrenei egiten zaizkien kalteak bere kontura ordainduko ditu.

24.2.3.- Egiteko epeak. Obra egiteko epe orokorra baldintza plegu honen 5. klausulan zehaztutakoa da.

Obrak egiteko epea zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta hurrengo egunean hasiko da kontatzen, baldin eta enpresa kontratistak erreserbarik egiten ez badu; bestela, erreserbarik egonez gero, kontratistari obrei ekiteko baimena emateko ekintza formala jakinarazi eta hurrengo egunean hasiko da kontatzen.

Epe horretan kontratuko lanei ekiten ez bazaie, kontratua suntsiarazi ahal izango da, honako kasu honetan izan ezik: atzerapena ezin bazaie egotzi ez IRUNVIri, ez enpresa kontratistari, eta horren berri ematen bada dagokion ebazpen arrazoituan.

Indarreko legerian aipatzen diren kasuetan bakarrik luzatu ahal izango da kontratuaren epea, bertan ezarritako baldintzak betetzen badira.

24.3.- ZUINKETA EGIAZTATZEA. Zuinketa egiaztatzeko ekintzarekin hasiko da kontratua gauzatzen. Egiaztapen hori gehienez HILABETEKO epean egingo da, kontratua formalizatzen den egunetik hasita.

Obren zuinketa enpresa esleipendunaren edo haren ordezkariaren aurrean egiaztatuko da.

Beraz, obrari ezin izango zaio ekin zuinketa egiaztatzeko akta egin gabe, ez eta akta horretan arrazoizkotzat jotzen diren erreserbak jasotzen badira ere; horrelako kasuetan, obraren hasiera etengo da edo obra bera behin betiko etetea erabakiko da.

Halaber, obra ezin izango da hasi aldez aurretik segurtasun eta higiene plana onartu gabe, eraikuntza obretako segurtasun eta osasun alorreko gutxieneko baldintzei buruzko 1627/97 Errege Dekretuak zehazten duenaren arabera.

Zuinketa egiaztatzeko akta eta epeak kontratuaren osagaitzat hartuko dira, eskatu ahal izateko ondorioetarako.

24.4.- EZINBESTEKO KASUAN. Ezinbesteko kasuetan, eta betiere enpresa kontratistaren aldetik jarduera zuhurtziagaberik egin ez bada, enpresa kontratistak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du sortu ahal izan zaizkion kalte eta galerengatik.

Ezinbesteko kasutzat hartuko dira SPKLren 239. artikuluan zehaztutakoak, eta HAKLAOren 146. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

24.5.- ZIGORRAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI BETETZEAGATIK, ZATI BAT EZ BETETZEAGATIK ETA BERANDUTZEAGATIK.

24.5.1. Zigorrak lana gaizki betetzeagatik.

Kontratua egikaritzen den bitartean edo harrera egiten zaionean ikusten bada, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuak xede duen prestazioa gaizki bete dela, kontratuaren prezioaren % 1eko zigorra jarriko da, BEZik gabe, kontratazio organoak, arrazoiak azalduta, ez betetzea larria edo oso larria dela irizten duenean salbu. Hala gertatuz gero, zigorra kontratuaren prezioaren % 5ekoa izango da lehenbiziko kasuan, eta % 10ekoa, berriz, bigarrenean, BEZik gabe.

24.5.2. Zigorrak zati bat ez betetzeagatik.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan jasotako prestazioen zati bat ez badu betetzen, kontratazio organoak bi aukera izango ditu kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiarazi edo kontratuaren prezioaren % 1eko zigorra jarri, BEZik gabe, kontratazio organoak, arrazoiak azalduta, ez betetzea larria edo oso larria dela irizten duenean salbu. Hala gertatuz gero, zigorra kontratuaren prezioaren % 5ekoa izango da lehenbiziko kasuan, eta % 10ekoa, berriz, bigarrenean.

24.5.3. Zigorrak berandutzeagatik.

Enpresa esleipenduna behartuta dago IRUNVIk zehaztutako kontratua gauzatzeko epeak eta epe partzialak betetzera.

Aipaturiko epe horietako edozein amaitutakoan, kontratista berandutu bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, IRUNVIk bi aukera izango ditu, kontratua suntsiarazi edo kontratuaren prezioaren % 1eko zigorra jarri, BEZik gabe, kontratazio organoak, arrazoiak azalduta, ez betetzea larria edo oso larria dela irizten duenean salbu. Hala gertatuz gero, zigorra kontratuaren prezioaren % 5ekoa izango da lehenbiziko kasuan, eta % 10ekoa, berriz, bigarrenean.

Berandutzea kontratatzaileari ezin egotz dakizkion arrazoiengatik gertatu bada, SPKLren 195.2. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Nolanahi ere, kontratatzailearen berandutzea gertatutakotzat jotzeko, ez da beharrezkoa izango IRUNVIk hura interpelatzea, edo hari hertsatuki agindurik ematea.

24.6.- KALTE-GALERAK. Ez betetze partzialetan, betetze akastunetan eta berandutzeetan, zigorra aurreikusita ez badago edo aurreikusita egonik ere IRUNVIri eragindako kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galerak ordaintzeko eskatuko dio hark kontratistari.

24.7.- ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI.

Enpresa kontratistak eskubidea izango du kontratuan eta haren aldaketetan (halakorik bada) ezarritako baldintzen arabera benetan egin dituen obrak hitzartutako prezioen arabera kobratzeko.

Ordainketaren ondorioetarako, Zuzendaritza Fakultatiboak hilero emango ditu, dagokion hilabetearen ondorengo lehen hamar egunetan, epe horretan egindako obraren ziurtagiriak.

Enpresa kontratistak ezin izango du inolako erreklamaziorik egin eskainitako prezioak aldatzeko, ez obra gauzatzeko epea edo obra egikaritzean gertatzen den neurketa handitzeagatik edo murrizteagatik, ez proiektuko akatsengatik, obraren zuzendaritza fakultatiboaren erabakiengatik edo antzeko inguruabarrengatik ere, baldin eta horiek ez baditu IRUNVIk idatziz espresuki onartu.

IRUNVIk planning-aren arabera egindako obrari dagokion zenbatekoa ordainduko du, transferentzia bidez, baloratutako obra zerrendak onartu eta hurrengo 30 eguneko epean.

Kontratistak garaiz eta behar bezala aurkeztu beharko du faktura IRUNVIren Administrazio sailean.

Baloratutako obra zerrenda guztiak kontu ontzat eta azken ordainketaren aurrerapentzat joko dira, eta ez dute esan nahi, inola ere, obra horiek onartu edo jaso direnik. Zerrenda baloratuak

egitean gerta daitezkeen akatsek ez dute esan nahi Zuzendaritza Fakultatiboak, Jabetzak edo Kontratak onartzen dituenik, eta, beraz, zuzendu egingo dira azken likidazioa eta ordainketa egiten direnean, eta une horretan konponduta geldituko dira. Aurrekoa deusetan galarazi gabe, akatsak obrak bukatu baino lehen eta baloratutako azken zerrendaren aurretik antzeman badira, akatsa gertatu denaren hurrengo zerrenda baloratuan zuzenduko dira.

Irunvik hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, egindako prestazioen kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten dokumentuak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita, SPKLren 210. artikuluaren 4. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, eta, atzeratzen bada, epe hori betetzen denetik aurrera, berandutze-interesak eta kobratze kostuengatiko kalte ordainak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari, merkataritza eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan, SPKLren 198.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Enpresa kontratistak kontratuan ezarritako epean edo epeetan egiteko behar dena baino azkarrago egin ahal izango ditu lanak, salbu eta obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren iritziz hori desegokitzat jotzeko arrazoirik badago. Hala ere, ez du eskubiderik izango urte bakoitzean, gauzatutakoaren edo emandako ziurtagirien zenbatekoa edozein dela ere, esleipen koefizienteak ukitzen duen kasuan kasuko urteko zenbatekoan adierazitakoa baino gehiago jasotzeko.

Enpresa kontratistak konturako ordainketak jasotzeko eskubidea izango du egindako prestaketa eragiketengatik, hala nola, obrari atxikitako materialak edo makineria astuneko ekipoak instalatu eta biltzeagatik, SPKLren 198.3 eta 240. artikuluetan eta HAKLAOren 155., 156. eta 157. artikuluetan horretarako ezarritako moduan eta bermeekin, eta AKOAren 54.etik 58.era bitarteko klausulekin bat etorriz.

24.8.- ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK ETA ESKA DAITEZKEEN GASTUAK.

Kontratu honen erregimen juridikotik etorritako betebehar orokorrez gainera, honako betebehar zehatz hauek ere izango ditu kontratistak:

a) INGURUMENARI, GIZARTEARI ETA LANARI DAGOKIONEZ. Enpresa kontratistak ingurumenari, gizarteari eta lanari dagozkion indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, Europar Batasuneko zuzenbidean, Estatuko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarekin lotura duten ingurumen, gizarte eta laneko nazioarteko zuzenbide xedapenetan ezarrita daudenak, eta bereziki SPKLren V. eranskinean ezarritakoak.

Bereziki:

- Kontratistak lan arloko legeek ezartzen dituzten betebeharrak beteko ditu, eta egunean izan beharko du laneko aseguruen, istripu aseguruen, mutualitateen eta lan arloko gainerako kuoten ordainketa. Bereziki, indarreko hitzarmen kolektiboaren edo hura berrikusten duten hitzarmen kolektiboen une bakoitzeko azken testuko lan baldintzak aplikatu beharko ditu. Kontratistari bakarrik dagokio betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko erantzukizun oro. Zerbitzu teknikoek, lan arloko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezala eskatu ahal izango

diote kontratistari, eta hark ezinbestean bete beharko du errekerimendu hori, batez ere enpresa esleipendunak eta, halakorik balego, azpikontratazioko katea osatzen duten enpresa guztiek bete beharko dituzte indarreko hitzarmen kolektiboa edo hura berrikusten duten hitzarmen kolektiboak, batez ere kontratua egikaritzeko atxikita dauden langileei ordaindu beharreko soldatari dagokionez.

- IRUNVIk inolaz ere ez du inolako lan harremanik eta bestelako erantzukizunik bere gain hartuko kontratistak kontratua egikaritzeko dituen langileei dagokienean.
- Soil-soilik kontratistak izango du, agirietan eskatutako titulazio eta esperientzia baldintzak beteta betiere, kontratua betetzeko atxikitako lantaldeko kide izango diren langileak aukeratzeko erantzukizuna, eta langileek baldintza horiek betetzen dituzten egiaztatu ahal izango du IRUNVIk.
- Enpresa kontratista lantaldean egonkortasuna egon dadin saiatuko da, eta lantalde horren osaeran egon daitezkeen aldaketak zehatzak eta justifikatutako arrazoien ondoriozkoak izan daitezen, lanen funtzionamendu egokia ez kaltetze aldera, eta une oro emango dio horri buruzko informazioa IRUNVIri.
- Enpresa kontratistak bere gain hartzen du kontratua egikarituko duen lantaldea osatzen duten langileen gain, enpresaburu orori berez dagokion zuzendaritza boterea modu errealean, eraginkorrean eta jarraituan erabiltzeko betebeharra. Zehazki, honako eginkizunak hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; langileei baimenak, lizentziak eta oporraldiak ematea; baja edo langile falten aurrean langile horiek ordeztea; Gizarte Segurantza arloko legezko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne; hala dagokionean, laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak betetzea; diziplina ahala erabiltzea, bai eta enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu harremanaren ondoriozko gainerako eskubide eta betebehar oro ere.
- Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean, indarrean dagoen araudiak ezarritako betebeharrak beteko ditu. Kontratatutako jarduera hasi aurretik, honako betebehar hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:
    - Kontratatutako jarduerari dagokion prebentzio jardueraren arriskuen ebaluazioa eta plangintza.
    - Kontratua betetzeko lanetan ariko diren langileei prebentzioari buruzko prestakuntza eta informazioa ematea.
    - Beharrezkoak diren norbere babeserako ekipamenduak banatu izanaren egiaztagiria edukitzea.

Atal honetan jasotako lan obligazioak **kontratua betearazteko funtsezko baldintzak** izango dira, SPKLren 202. artikuluan ezarritakoaren arabera; artikulu hori betetzen ez bada, agiri honetan aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

b) LAN PROGRAMA. Kontratistak lan programa aurkeztu beharko du kontratua formalizatzen den egunetik hasi eta hamabost eguneko epean gehienez ere. Kontratazio organoak aurkeztu ondoko hamabost egunetan hartuko du lan programaren inguruko erabakia, eta zenbait aldaketa egiteko eta hainbat agindu betetzeko agindua eman ahal izango du.

Urriaren 12ko 1098/2001 Araudiaren 144.3 artikuluan jasotako datuak sartuko dira kontratistak aurkeztu beharreko lan programan.

Kontratistak lan programa behar bezala aurkeztu arte obra ziurtagiriak ez ordaintzeko erabakia hartu ahal izango du obra zuzendaritzak, baina horregatik ez da sortuko ziurtagirien ordainketan atzeratzeagatik berandutze interesak kobratzeko eskubiderik.

c) LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA. Esleipendunak laneko arriskuen plana eduki behar du, eta IRUNVIri aurkeztu beharko dio kontratua egikaritzeko epeko lehen hamabostaldian. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak xedaturikoaren arabera beteko da kontratetarako eta azpikontratetarako laneko arriskuen prebentziorako protokoloa.

d) KONTRATUA EGIKARITZEKO EGIN BEHARREKO GASTUAK. Enpresa kontratistaren kargura izango dira zuinketa egiaztatzeko, zuzendaritzako, ikuskapeneko eta likidazioko lan fakultatiboak eta aplikatu behar diren gainerakoak egiteagatik ordaindu beharreko tasak, indarrean dauden xedapenen arabera, haiek adierazitako moduan eta zenbatekoan.

Gainera, enpresa kontratistaren kontura izango dira obra zuzendaritza fakultatiboak materialak eta obra unitateak egiaztatzeko eta probatzeko beharrezkotzat jotzen dituen lanek eragindako gastu guztiak, gehieneko kopuru honekin: obraren esleipen aurrekontuaren % 1.

Enpresa esleipendunak udal baimen guztiak kudeatu behar ditu: aldamioak jartzeko baimena, pasabide baimenak, hesiak jartzeko baimena, hartuneak egiteko galtzadak irekitzeko baimenak eta abar. Enpresa kontratistaren kontura izango dira horien guztien kudeaketak eta haien gaineko tasek eragiten dituzten gastuak, bai eta egikaritze gastuak ere.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira instalazioek behar bezala eta legez ezarri den bezala funtzionatzeko behar diren altak eta jarduteko, sare eta zerbitzu loturak egiteko, behin-behineko hartuneak eta, oro har, gainerako lan guztiak egiteko baimenak lortzeko erakunde eskudunei aurkeztu beharreko proiektuak idaztea eta onartzea, eta egin beharreko kudeaketak, gastuak, tasak, arielak, eta abar. Behin betiko hartuneak honetatik salbu daude eta erakunde kontratatzailearen kontura izango dira.

Enpresa kontratistak bere kontura hornitu behar ditu energia elektrikoa, ura, telefonoa eta obrak eta instalazioak egiteko behar diren zerbitzu guztiak. Zerbitzu horien hornikuntzan indarrean dagoen araudia bete behar da.

e) SEINALIZAZIOA. Enpresa kontratistak bere kontura jarri beharko ditu obren berri ematen duten kartelak, bai eta obra gunearen sarreren seinaleak, lanak egiten diren eremuko zirkulazioa antolatzeko seinaleak eta obra lekuko zein inguruetako arrisku guneak adierazteko seinaleak ere.

f) AGINDUEN LIBURUA. Enpresa kontratistak aginduen liburua obran eta eskura eduki beharko du beti. Liburu hori obraren zuzendaritza fakultatiboaren esku egongo da, eta hark bertan idatzi beharko ditu obrak egiten direnean dauden bisitak, sortzen diren ezbeharrak edo gorabeherak eta han ematen diren aginduak.

Kontratista derrigortuta dago, bai bera edo bere ordezkaria, agindu edo jarraibide horien hartu-agiria sinatzera.

Obrak hartzeko ekintzan, aginduen liburua behar bezala beteta aurkezteko eskatuko da. Ekintza hori amaitutakoan IRUNVIren esku geratuko da.

g) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK. Kontratuaren esleipena daukan enpresak eta egon litezkeen azpikontratistek kontratua gauzatzean bi hizkuntza koofizialak (euskara eta gaztelania) erabiltzen direla egiaztatu beharko dute, eta beren lanean elebitasunarekin eta herritarren hizkuntza eskubideen errespetuarekin loturiko irizpideak beteko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan, Euskararen Normalizaziorako 10/1982 Legean, Euskadiko Administrazio Publikoaren Normalizazio Prozesuak arautzen dituen 86/1997 Dekretuan eta Euskararen Normalizazioari buruzko Irungo Udal Ordenantzan jasotako xedapenen arabera.

24.9. AZPIKONTRATAZIOA. Kontratuaren esleipendunak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du kontratuaren zati bat betetzea, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Nolanahi ere, azpikontratazioaren aurretik, IRUNVIri idatziz ematea egin beharreko azpikontratuaren berri, azpikontratistak bete beharreko kontratuaren alderdiak adieraziz, baita alderdi horien zenbatekoak eta azpikontratistaren nortasuna ere; era berean, azpikontratistak kontratua gauzatzeko nahikoa kaudimen edo gaitasun duela egiaztatu beharko da, eskura dituen elementu teknikoei eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez. IRUNVIk ezin izango du azpikontratazioren baten aurkako jarrerarik izan arrazoitu gabe; baina arrazoituz gero, esleipendunak azpikontratazio hori bertan behera utzi beharko du.

Kontratistak inola ere ezin izango du kontratuaren zati bat betetzea gaitu gabeko pertsonekin hitzartu, ordenamendu juridikoaren arabera edo Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluaren zenbait balizkotan jasotakoaren arabera. IRUNVIri egin beharreko azpikontratuaren berri emateko jakinarazpenarekin batera, egoera horren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da. Hala ere, IRUNVIk kontratuaren edo azpikontratuaren betearazpenaren edozer unetan eskatu ahal izango du esleipendunak dokumentazio bidez egiazta dezala obligazio horiek betetzen dituela; horretarako, azpikontratatutako enpresa guztien kontratuetan dokumentazioa egiaztatzeko obligazio horiek guztiak ezarri beharko ditu kontratista nagusiak.

c) Kontratista nagusiak idatziz jakinaraziko dizkio Kontratazio Organoari kontratu nagusia gauzatzen den bitartean informazio honetan izan litekeen edozein aldaketa eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia.

d) Kontratistak obligazioa hartu behar du azpikontratistei hitzartutako prezioa ordaintzeko, agiri honetan ezarritako epeak eta baldintzak baino kaltegarriagoak izan ez daitezen IRUNVIren eta kontratatzailearen arteko harremanetarako.

e) Nolanahi ere, aplika daitekeen araudiak eskatzen dituen gaikuntzak eta baimenak izan beharko ditu enpresa azpikontratatzaileak. IRUNVIk kontratista nagusiaren aurreko obligazioa izango du soilik. Beraz, kontratista nagusia erabat arduratuko da azpikontratatzaileek kontratua egikaritu dezaten IRUNVIren aurrean, Agiri hau eta kontratuaren baldintzak hertsiki betez.

f) IRUNVIk egiaztatu ahal izango du kontratuen kontratista esleipendunek azpikontratatzaile guztiei edo kontratuetan parte hartzen duten hornitzaileei ordainketak zuzen egiten dizkietela. Kasu horretan, kontratista esleipendunek IRUNVIri bidaliko diote, hark hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratatzaileen edo hornitzaileen zerrenda xehea, haien parte hartzea burutzen denean, ordainketa epearekin lotura zuzena duten horietako

bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzekin batera. Era berean, IRUNVIk eskatuta, haiei egindako ordainketen ordainagiriak ere aurkeztu beharko dira. Esleipenduna den enpresak kontratuaren xede diren prestazioetakoren bat kontratua betearazten hasten denetik azpikontratatzea aurreikusten badu, kontratuaren esleipena jakinarazi ondoren eta kontratua formalizatu aurretik, honako hauen berri eman beharko dio IRUNVIri: azpikontratatzaileak kontratuaren zein zati egingo duen edo dituen, haien zenbatekoa, eta azpikontratatzailearen edo azpikontratatzaileen nortasuna, lehenago eskatu den dokumentazioarekin batera.

24.10. KONTRATUA LAGATZEA.

Ez da onartuko kontratu hau lagatzea.

24.11. KONTRATUAREN ALDAKETAK.

Kontratua burututakoan, interes publikoko arrazoiak daudenean bakarrik egin ahal izango dira aldaketak, SPKLren 203.2 b) eta 205. artikuluak jasotako kasuetan eta ezarritako mugekin.

Aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat SPKLren 206. artikuluan xedaturikoarekin bat, eta SPKLren 2017. artikuluan aurreikusitako prozedura berezitasunak tramitatu ondoren adostuko dira.

Kontratuaren aldaketak bermea berregokitu ondoren formalizatuko dira, 153. artikuluaren arabera, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluetan xedaturikoarekin bat argitaratuko dira.

Bestelako kasuetan, kontratua hitzartutakoaz beste modu batean bete behar bada, kontratua suntsiarazi egingo da eta beste kontratu bat egingo da beharreko baldintzen pean, hala badagokio deialdia eta lizitazio publiko berria egin ondoren SPKLn aurreikusitakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe 213. artikuluaren 6. atalean xedaturikoa zerbitzuan nahasmen larririk sor ez dadin kontratistak duen beharreko neurriak hartzeko betebeharrari buruz.

24.12 KONTRATUA ETETEA. Etete alorrean SPKLren 208. artikuluan eta HAKLAOren 103., 170. eta 171. Artikuluetan xedaturikoa aplikatuko da.

Kontratua aldi batez (zati bat edo dena) edo behin betiko eteten bada, etete akta egingo da (obren zuzendaritza fakultatiboak eta enpresa kontratistak sinatu behar dute) eta bertan honako datu hauek jaso behar dira: Administrazioak kontratua eteteko hartutako erabakia, etetea eragin duten inguruabarrak eta lanen egikaritzea zertan den, eteteak zein obra zati ukitzen dituen edo obra guztia ukitzen duen ongi zehaztuta.

Kontratua etetea erabakitzen denean, IRUNVIk enpresa kontratistari egiazki izan dituen kalte-galerak ordainduko dizkio, SPKLren 208.2. artikuluan jasotako arauak kontuan harturik.

IRUNVIk obrak zortzi hilabete baino gehiago etetea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da.

24.13. OBREN HARRERA.

24.13.1. Enpresa kontratistak kontratua bete duela ulertuko da kontratista horrek obra osoa burutu duenean, kontratuan adierazitakoari jarraiki eta IRUNVIk eskatu bezala.

Enpresa kontratistak, edo haren ordezkariak, idatziz jakinarazi behar dio obren zuzendaritza fakultatiboari obrak amaitzeko aurreikusitako data, berrogeita bost lanegun lehenago gutxienez.

Obra idatzizko jakinarazpena egindakoan jasoko da, gehienez ere obra hori bukatu ondoko hilabetearen barnean.

Obren jasotzearen akta egingo da eta ekintzan bildu diren pertsona guztiek sinatu behar dute. Akta horretan obrak ondo eta kontratuan ezarri bezala dauden argitu behar da. Hala izanez gero, zuzendaritza fakultatiboak obrak jasotzat emango ditu, eta orduan hasiko da berme aldia.

Obrak ez badaude hartzeko moduan, halaxe jasoko da aktan eta zuzendaritza fakultatiboak adieraziko du zein oker sumatu diren eta beharreko aginduak emango ditu, epe bat jarrita, oker horiek konpontzeko. Epe hori igaro ondoren kontratistak ez baditu okerrak zuzendu, beste epe bat eman ahal izango zaio, epe luzaezina, edo kontratua suntsiarazitzat jo ahal izango da.

IRUNVIk obren harrera partzialak egin ahal izango ditu.

Espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoi bereziak egoteagatik IRUNVIk erabakitzen badu obrak egiazki okupatzea edo erabilera publikorako zerbitzuan jartzea, jasotze ekintza formala egina ez bada ere, inguruabar horiek gertatzen direnetik sortuko dira obrei harrera egiteko ekintzak bere dituen eraginak eta ondorioak arauek xedaturiko moduan.

24.13.2.- Hiru hilabeteko epearen barnean, obrak jaso direnetik aurrera kontatuta, kontratazio organoak egindako obren amaierako ziurtagiria onartu beharko du, eta kontratistari ordainduko zaio kontratuaren likidazioaren kontura.

24.14. BERME EPEA

Jasotze akta egiten denetik hasiko da kontatzen urtebeteko gutxieneko berme epea.

Berme aldian enpresa kontratista izango da obran suma daitezkeen akatsen eta hutsen erantzulea. Gainera, obra zaindu eta kontserbatu beharko du baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren eta obren zuzendaritza fakultatiboak emandako jarraibideen arabera, obran gertatzen diren berezko kalteen erantzulea izanik.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunak bere eskaintzan berme epe hobea aurkeztu badu, proposamenean eskainitako epeari erreparatuko zaio eta gutxieneko berme epearen urte gehigarri horiek hartuko dira kontuan; fidantza ez da itzuliko harik eta epe hori igaro arte eta dagozkion egiaztapenak agin arte.

24.15.- KITAPENA.

Berme epea amaitu aurreko hamabost egunetan obraren zuzendaritza fakultatiboak, ofizioz zein enpresa kontratistak eskatuta, obraren egoerari buruzko txostena idatziko du, honako ondorio hauekin:

- Txostena aldekoa bada, enpresa kontratistak ez du geroztik inolako erantzukizunik edukiko, ezkutuko akatsengatikoaz besterik, eta bermea itzuliko zaio edo kitatu egingo da, kontratua likidatuko da eta, hala badagokio, ordaindu gabe dauden betebeharrak ordainduko dira.

- Txostena ez bada aldekoa eta sumatutako akatsak obra lanen ondoriozkoak badira, hau da, ez badira erabilerak sortuak, berme aldian zuzendari eskudunak bidezko aginduak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala zuzentzeko eta horretarako epea jarriko zaio. Epe

horretan enpresa kontratistak obrak zaintzen jarraitu beharko du, berme epea luzatu izanagatik inolako zenbatekorik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Hala ere, berme epea amaitutakoan obra narriatzen bada eraikuntzako akatsen ondorioz, hain zuzen ere enpresa kontratistak kontratua bete ez duelako, honek kalte-galeren erantzukizuna edukiko du hamabost urtean obra jasotzen denetik hasita.

24.16.- KONTRATUA EZEZTATZEA. Kontratua indargabetu delako eta amaitu edo bete delako iraungiko da. Hortaz, honako hauek dira ezeztatzeko arrazoiak:

-Kontratuaren funtsezko klausulak ez betetzea.

-Banakako kontratistaren heriotza edo bat-bateko ezintasuna, edo sozietate kontratistaren izaera juridikoa iraungitzea. Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresa-bategiteen kasuetan, kontratuak indarrean jarraituko du erakunde xurgatzailearekin edo bategitearen emaitzazkoarekin, eta kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztietan subrogatuta geratuko da. Era berean, enpresen edo enpresa horien jarduera adarren bereizketa, ekarpen edo transmisio kasuetan, kontratuak ondoriozko erakundearekin edo onuradunarekin jarraituko du, eta kontratua erakunde horren ondoriozko eskubideetan eta obligazioetan subrogatuko da, betiere esleipena adosten denean eskatzen den kaudimena badu.

-Kontratista epeak betetzean atzeratzea.

-Kontratua lagatzea.

-IRUNVIren eta kontratistaren arteko akordioa.

-Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea.

-Esleipendunaren Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin obligazioak izatea betetzeke.

-IRUNVIren zuzendaritza eta ikuskaritza ahalmenak oztopatzea.

-Kontratua betetzen ari denean kontratistak hartan esku hartzen ari diren langileei soldatak ez ordaintzea edo, era berean kontratua betetzen ari denean, langile horiei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboetan finkatutako baldintzak ez betetzea. Kontratua kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ezeztatzen denean, kontratistak kalte-ordainak eman beharko dizkio IRUNVIri sortutako kalte eta galerengatik. Kalte-ordaina bermearen kopurutik kenduko da, baina hala ere esleipendunak beharreko erantzukizuna izango du konfiskatutako bermea gainditzen duen zenbatekoari dagokionean.

25. ASEGURUAK

Erakunde kontratistak, bere jarduera garatzeko nahitaezkoak diren gainerako aseguruez gain, bere kontura hitzartu beharko ditu, kontratua gauzatzen hasi baino lehen, ondoren adierazten diren aseguru polizak, ezarritako kontzeptu, zenbateko, estaldura, iraupen eta baldintzen arabera:

a) Eraikuntza eta berme aldirako poliza, pertsonei, higiezinei, mugakideei eta hurbilekoei, ondasun higigarriei eta abarri eragindako kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibila

estaliko duena. Eta, oro har, obren ondorioz sor daitekeen edozein kalte, barne hartuta amaiera edo akabera elementuei eragiten dieten kalteak, edo langileen, enplegatuen eta etengabeko nahiz noizbehinkako mendekoen ekintzek, haien makinek, ekipoek eta baliabide osagarriek, Dumperrek eta abarrek eragindakoak. Aseguratuenak, bai eta esleipenaren xede diren obrak gauzatu bitartean eta kontratu harremana betez egindako lanen ondoriozkoak ere. Poliza horrek 600.000 euroko zenbatekoa aseguratuko du. Polizaren iraupena baldintza agiri honen xede den obra bukatu eta eskura jarri artekoa izango da, eta bermeen epean luzatuko da. Poliza horretan aseguratu gehigarri gisa agertuko dira erakunde kontratatzailea eta haren langileak (horregatik utzi gabe hirugarren indemnizagarriak izateari), sozietate esleipenduna, kontratistak eta azpikontratistak eta obretan parte hartzen duen edozein pertsona edo erakunde. Erantzukizun zibileko aseguruan sartu beharreko gutxieneko estaldurak honako hauek dira:

- Ustiapeneko Erantzukizun Zibila: Aseguratuak hirugarrenei ordaindu beharko lizkiekeen kalte ordainak, hirugarren horiei eragindako kalteen erantzule zibila den aldetik, pertsonei edo ondasunei egindako kalteengatik, egitez edo ez egitez, zuzeneko erantzukizuna edo erantzukizun subsidiarioa izan, obra egitearekin zerikusia duten istripuen ondorioz, bai eta IRUNVIren aurkako edozein erreklamazio ere, aseguratutako lanetan bertan jatorria badu eta aseguratua horren erantzulea bada.

- Erantzukizun zibil patronala.
- Erantzukizun zibil gurutzatua.
- Azpikontratisten erantzukizun zibil subsidiarioa.
- Lanen osteko erantzukizun zibila.

Aseguratuek IRUNVIri jakinarazi beharko diote asegurua berritzearekin edo ez ordaintzearen loturiko edozein gorabehera, betiere aseguruaren indarraldia inola ere eten gabe, eta ordaindu gabeko ordainagiria, hala badagokio, IRUNVIri pasa beharko diote. IRUNVIk zenbateko hori kobratu ahal izango dio esleipendunari obra ziurtagirien eta, hala badagokio, behin betiko bermearen kontura. Ezin izango da inola ere arrisku horien estaldura aldatu edo bertan behera utzi, IRUNVIren berariazko eta idatzizko baimenik gabe, eta esleipendunak ordaindu beharko ditu primak eta frankiziak, hala badagokio. Sinatutako polizan jaso beharko dira baldintza eta debeku horiek. Era berean, aseguru polizan adierazi beharko da lizitazio hau arautzen duten Administrazio Klausula Berezien Agiri honen arabera egin dela, eta erantzukizun zibileko polizaren eta klausula honen artean kontraesanik egonez gero, agiri honetan xedatutakoak izango duela lehentasuna.

b) a) atalean aipatutako aseguruaz gain, esleipendunak honako aseguru kontratu hauek sinatu eta bere kontura mantendu beharko ditu, lanak egiten diren bitartean eta berme epean:

1. Lan istripuen asegurua eta langileen aseguru sozialak, indarrean dagoen araudiaren arabera.

2. Nahitaezko asegurua, bai bere ibilgailuena bai obraren esleipendunak erabiltzen dituenena, erantzukizun zibila mugarik gabe bermatuz.

3. Bizi edo istripu poliza, bai eta indarrean dauden hitzarmen kolektiboen edo legezko nahiz kontratuzko betebeharren ondorioz esleipendunari eskatzen zaion beste edozein aseguru ere. Klausula honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzeak ez ditu mugatuko enpresa esleipendunak gainerako kontratu-xedapenen arabera bere gain hartutako betebeharrak eta erantzukizuna. Kontratatzailearen oinarrizko eta zuzeneko erantzukizuna ere ezin izango da murriztu, leundu edo subrogatu aseguratzaileen baldintzetara eta jardueretara.

26. KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratatutako zerbitzuekin loturik enpresa esleipendunak ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekotzat hartuko dira, eta halakoen nortasuna eta sekretua gorde beharko ditu.

Enpresa esleipendunak IRUNVIri eta kalteturiko pertsonei kalte-ordaina eman beharko die sekretu profesionala hausteagatik sortutako kalte eta galerengatik.

Enpresa esleipendunak kontratua betetzeko beharrezkoa delako datu pertsonalak erabili eta tratatu behar baditu, Datu pertsonalak babesteari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 13ko 3/2018 Lege Organikoak eta hura garatzen duen araudiak xedaturikoa beteko da.

Enpresa esleipendunak kontratua dela eta eskuratzen dituen datu pertsonalak ezin izango ditu bertan agertzen dena ez bestelako xede baterako erabili, ez eta beste pertsona batzuei laga, ezta gordetzeko ere.

Kontratuan jasotako prestazioa betetakoan, tratatutako datu pertsonalak IRUNVIri eman beharko zaizkio.

27. ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA.

27.1 Plegu honetan ezarritakoaren arabera, kontratua pribatua da. Horrenbestez, honako hauek izango ditu arau:

- Kontratua prestatzeari, esleitzeari eta aldatzeari dagokienez, azken horien inpugnazioa SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen bada eta aldaketa hori beste esleipen baten xede izan behar zela uste bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako administrazio errekurtsoak aurkeztu ondoren, nahi bada.

- Kontratuaren ondorioei eta amaierari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauen arabera, SPKLren 319. artikuluan aurreikusitako moduan, eta jurisdikzio ordena zibila izango da eskuduna.

Esleipendunak berariaz uko egiten dio bere helbideko foruari, eta obra dagoen udalerriko epaitegien eta auzitegien mende jartzen da, sor daitezkeen gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko eskumena badute.

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA.

1. **Kontratazio prozedurarako izapideak egiteko (dokumentuak bidali, kontratua sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.**

1.1. - Baldintza administratiboak:

a) Ziurtagiri digitala izatea, Irungo Udalak tramitazio elektronikoetarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria)
- FNMT (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria)
- Nortasun agiri nazional elektronikoa
- Camerfirma (erakundea, herritarra)

b) Egoera hauetako batean egotea:

- Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.
- Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntza sisteman.
- Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEren konpromisoak aldi baterako gaikuntza sisteman erregistratuta egon beharko du.

1.2. – Baldintza teknikoak:

Honako esteka honetan dago elektronikoki lizitatzeko eskakizun teknikoei buruzko informazioa:

https://www.contratacion.euskadi.eus/informacion-general-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

1.3. – Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945016298.

2. **Lizitazio elektronikoaren sisteman nola sartu:**

Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da:

https://www.contratacion.euskadi.eus/

II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Lizitatzaileak EKAB aurkezteak balio du agiri honetan zehazten diren eta lizitazio prozeduran parte hartzeko behar diren AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA aurretiaz frogatzeko.

Lizitatzaileek EKAB agiria aurkeztu beharko dute, hots, finantza egoeraren, gaitasunen eta kontratazio publikoko prozedura batean parte hartzeko enpresen egokitasunaren erantzukizunpeko adierazpena, SPKLren 140. artikuluarekin eta **2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Gauzatze Erregelamenduarekin (EB)** bat etorriz, azken horrek ezartzen baitu kontratazio agiri europar bakar horren formulario normalizatua eta betetzeko jarraibideak.

Kontratazio organoak erabili ahal izango ditu BAT zenbakidun artxibo elektronikoan aurrez aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko dituen ahalmenak, eta horretarako, dagozkien egiaztagiriak aurkezteko eskatuko du, 39/2015 Legearen 69. artikuluak xedaturikoaren arabera.

Nolanahi ere, lizitatzaileak EKAB agiria aurkezteak berekin dakar konpromiso jakin bat, hots, kontratuaren esleipen proposamena bere aldekoa bada, ordezkatzen dituen egiaztagiriak helaraztekoa 33 klausulan aurreikusitakoaren arabera.2.

2.- EKAB formulario normalizatua.

EKAB formulario normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektroniko honetan: https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

3.- Jarraibideak:

Dokumentuan deklaratzen diren **betekizunak bete egin beharko dira**, edozein kasutan, **lizitazio epearen azken egunez**, kontratatzeko debekuak izan ezik, horiek mantendu egin beharko baitira gutxienez kontratua formalizatu arte, eta Administrazioak egiaztapenak egin ditzake prozedurako edozein unetan.

Adierazpena horretarako nahiko ahalmena duen pertsonak **sinatu** behar du.

Kontratuaren gaia **sortetan zatitzea** aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak sortatik sortara aldatzen badira, EKAB bat aurkeztuko da kaudimen baldintza berberak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzeko edo sorta talde bakoitzeko.

Bitartekoak atxikitzeko eskakizuna kanpoko bitartekoekin betetzen badu lizitatzaileak, honek bere EKABa aurkeztu beharko du, eta EKAB bana, gainera, kontratua betetzeari atxikitako bitarteko bakoitzeko.

Enpresa batzuk **aldi baterako elkartea** eraturik aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasun, gaitasun eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guzti-guztiek dagokien EKAB inprimaki normalizatua aurkeztu beharko dute. EKABen formulario normalizatuaz edo normalizatuez eta ABEE eratzeko konpromisoaz, edo, hala badagokio, behin-behineko bermea egiaztatzen duen dokumentuaz gain, lizitatzaileen adierazpena, enpresa talde bateko kide diren ala ez adierazten duena, sartu beharko da BAT zenbakidun artxibo elektronikoan, agiri honen V. eranskineko ereduaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **inskribatuta** agertzen diren **enpresak** ez daude behartuta dagoeneko eguneratuta agertzen diren datuak helaraztera, betiere, EKAB agiriaren inprimaki normalizatuan inguruabar hori adierazten bada. Edozein kasutan, lizitatzaileak ziurtatu behar du zeintzuk diren egiaz inskribatuta eta eguneratuta agertzen diren datuak ez zeintzuk ez. Eskatutako datu edo informazioren bat aipatutako Lizitatzaileen Erregistroan agertzen ez denean edo bertan eguneratuta ez dagoenean, formularioa betez helarazi beharko da.

EKAB inprimaki normalizatuaren erabilerari dagokionez, lizitatzaileek **honako dokumentu hauek kontsultatu ahal izango dituzte**:

2016/7 Erregelamendua (EB) web orri honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, helbide honetan eskuragarri dagoena:

https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2016-3392

4.- Prozedura honetarako formulario berezia jasotzen duen XML fitxategia kontratatzailearen profilean dago.

III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

..... jaunak/andreak, helbidea .....(e)n eta NAN ..... duenak, bere izenean edo ..... gisa (adierazi ordezkaritza ahalmenak: administratzaile bakarra, ahalduna…), egoitza soziala .....(e)n eta IFK ..... duen ..... enpresa ordezkatuz, ETA

..... jaunak/andreak, helbidea .....(e)n eta NAN ..... duenak, bere izenean edo ..... gisa (adierazi ordezkaritza ahalmenak: administratzaile bakarra, ahalduna…), egoitza soziala .....(e)n eta IFK ..... duen ..... enpresa ordezkatuz,

ADIERAZTEN DUTE

Konpromisoa hartzen dutela formalki aldi baterako enpresa elkartea eratzeko, % ……eko eta % ……eko partaidetzarekin, eta ordezkari edo ahaldun bakar izendatzen dutela, enpresaburuen elkartearen izenean kontratua azkendu artean bertatik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askirekin,

…….

Eta adierazpen honekin ados gaudela adierazteko, sinatzen dugu .....(e)n, 202…ko .....ren .....(e)an.

Stua.: Stua.:

Enpresaren zigilua Enpresaren zigilua

IV. ERANSKINA.- ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**
Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen duen enpresa:

☐ **BAI** Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako kasuren batean sartzen dela.
☐ EZ dagoela Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako inolako egoeratan.
Erantzuna baiezkoa bada:

	EZ du kontratuaren esleipenean parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin batera ere.
	BAI hartzen du parte kontratuaren esleipenean talde bereko enpresekin edo banakako proposamenak aurkezturik Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluak ezartzen dituen aukera kasuetan sartuta daudenekin; enpresak hauek dira.

IFZ/IFK	Sozietatearen izena

(*) Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua:

"Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak".

V. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTZEN DIREN DOKUMENTUEI ETA DATUEI BURUZKO ADIERAZPEN EREDU OSAGARRIA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena	**NAN-IFK**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatzen dudan enpresaren izenean**

Ordezkatuaren sozietate izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**

ADIERAZTEN DU

Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzial jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdi** hauek:

1.

2.

3.

Datu horiek konfidentzialak dira honako arrazoi hauengatik:

1.

VI. ERANSKINA.- HITZARMEN KOLEKTIBO APLIKAGARRIA

[1]…… jaunak/andreak, NAN……, bere izenean edo (*operadore ekonomikoa*) ……ren izenean, NAN……

ADIERAZTEN DU:

Esleipendun izaten bada, kontratuaren xedeko jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa hauxe izango dela*: ……..[2]

[1] **Bi operadore ekonomikok edo hainbatek esleipendun izanez gero formalki ABEE eratzeko konpromisoarekin aurkezten badute beren eskaintza, kasuen arabera, adierazpen hau operadore ekonomiko bakoitzak behar bezala sinatua aurkeztu beharko da edo haietako bakoitzaren ordezkariek <u>sinatu</u> beharko dute.**

[2] Hitzarmen kolektiboaren izena adierazi.

VII. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA ETA FORMULAK ETA PUNTUAZIO AUTOMATIKOAK APLIKATUZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEAK

..... jaunak/andreak, adin nagusikoa, ……. bizi dena, jakinarazpenetarako helbidea …….. duena, …… NANaren titularra, ……(e)an egina, bere izenean (edo ……en izenean eta ordezkari gisa, ... bizi dena, Ahal Askietsiaz egiaztatzen dudan bezala), enpresaren telefono zenbakia ……., eta enpresaren fax zenbakia ……..

ADIERAZTEN DU

"Lehenengo.- IRUNVIk kontratatzailearen profilean argitaratutako iragarkiaren berri duela, IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA/SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN, S.A.U.ren (IRUNVI) bulegoa berritzeko obren kontratazioa prozedura ireki arruntaren bidez esleitzeko".

Bigarren.- Administrazio Klausula Berezien Agiria eta dokumentazio teknikoa aztertu dituela eta ezagutzen dituela.

Hirugarren.- Kontratazio honi aplikatu beharreko lege eta araudi testuak ere ezagutzen dituela.

Laugarren.- Eskaintza honetako obrei dagokienez, proposatzen du obra horiek guztira ……. eurotan egitea (letraz eta zenbakiz adierazi behar da), honela banatuta:

Nagusia.-
BEZa-
Guztira.-

Prezio horren barnean sartuta daude kontzeptu guztiak, edozein zerga alorreko zerga, gastu, tasa eta arielak, bai eta BEZa eta kontratistaren industri etekina ere.

Eranskin gisa doa prezio unitarioen zerrenda, proiektuaren aurrekontu partzialetan agertzen diren eta eskaintza ekonomikoa egiteko balio izan duten obra unitate bakoitzerako. Era berean, partiden prezio banakatuak eta BEZa adierazten dira.

(OHARRA: prezio horiek aurkezten ez badira, ulertuko da lizitatzaileak Administrazioaren aurrekontuan ageri direnak aurkezten dituela, proposamen ekonomikoan jasotako prezioaren jaitsiera ehuneko berean).

Bosgarren. - (… hala badagokio…) konpromiso hau hartu da:

- Urtebeteko gutxieneko berme epea beste ……. (urte bat/bi/hiru/lau) luzatuko da.

Seigarren.- (hala badagokio…), azpikontratazio aurreikuspenak zehazten dira.

……(a)n, 2022ko …….ren ……(e)an.

Sinadura